

BIDEGOIAN

Hedqdura: 13'7 Km2

Jaiak:

■ Herrikoak: Abuztuaren 24ean, San Bartolome. Bidania auzoko festak.

Biztanlegoa: 441 biztanle

■ Jasokundearen Ama: Goiazko jaiak.

Egun Bidegoian izenez ezagutzen dugun udalerria Goiaz eta Bidania herrien arteko baturaren ondorioa da. Ifarraldean Errezil du mugaide, hego eta ekialdean Albiztur eta mendebaldean Beizama.

Gipuzkoaren muin-muinean lekutzen da, ibar itxi baten gainean, 500 metrotako altueran. Ingurua ikusgarria da.

Inguruko mendietako basoek eta kareharrizko gailurrek larre eta baratzez betetako ibar zabala mugatzen dute. Hegora begira kokatzen diren baserriak zelai eta hegi-magaletan sakabanatzen dira. Inguruguneak eskaintzen dituen baldintza ezin hobekak Albiztur, Beizama eta Errezilen barna barreiatzen dira. Mendiak eta komunikabideetak errepide nagusietatik urruti egoteak berezko baldintzak bakandu eta gordetzea bideratu dute, ziurrenik orain arte Gipuzkoako geografian ohizko izan den paisaiari babesean eutsiaz.

Bi udalerritako sail honek, Errezil, Aia eta Beizamarekin batera Saiatzgo Alkatetza osatu zuen eta 1563tik aurrera Saiatzgo Batura.

XVIII. mendean zehar Bidaniak, desatureriko Saiatzgo Alkatetza osatzen zuten gainerako herrixkekin izan zituen sistrak amaigabeak egin zirenez gero, Juan Bautista Arruti 1792an Albiztur, Bidania, Goiaz eta Errezilek batean zituzten lurak mugatzeko ardura eman behar izan zitzaion.

Bidaniako udalerrian Elsarraga etxea tentetzen Zen, Azkoitiko Basarterekin batera, Probintziako Biltzar Partikularrak egiteko Erregearen baimena zuten leku bakarrak.



Bidaniako Udaletxea.

Etxe hau desagertu zelarik bilerak Bidaniako San Bartolome elizara aldatu ziren (24-53).

964ean Goiaz eta Bidania herriek zuten biztanlego urria zela eta, udalerririk bakar batera biltzeko erabaki hartu zuten: Bidegoian, burutza Bidanian duela, honek ekarri zuen biztanle kopuru handiagoa eta.

BIDANIA

Bidaniaren hiri-tajuketak erreferentzia garbiak eskaintzen ditu herriaren eraketa-bidea interpretatzerakoan. Baserriak eta etxeak tajutzen diren eratik errepideen mesedetan garai bateko egitekoa galdu duen bidegurutz baten izatea erator daiteke. Aizkomita muinoan (24-31) gurdibideetarako egoki Zen harrizko galtzada zahharren aztarnak gorde dira. Santutxo eta Bidania artean gaur egun dagoen bide bera markatzen dute, ibarraren ildo beretik jarraituz Albizturrerantz bidea egiten zuena.

Bide hau erabiltzeari 1923an utzi zitzaion errepide berria egitearekin batera.

HIRIGUNEA

Bidaniako gune nagusiaren tajuketan badirudi garrantzia handia izan zutela Errezilen zehar Urola eta Oriako ibarrak lotzen dituen bideak eta Ernio alderantz Goiazetik datorren errepide zahar batek.

Multzorik nagusia kale-bide antzera tajutzen da, Eliza eta Udaletxea direlarik eraikuntza nagusi.

■ San Bartolome Parroki-Eliza(24-53)

Badirudi San Bartolome Parroki-Eliza (24-53) gaur egun dagoen lekura XVIII. mendean aldatu zela. Ordura arte goigune batean lekutu Zen, herrigunetik zertxobait aldenurik gelditu zena. Gune hau oraindik erabilgarri dago, bertan Hilerriko kapera (24-58) lekutzen delarik.

Eliza berrirako hautaturiko orubeak ez zituen eraikuntzarako oso baldintza egokiak azaltzen eta honenbestez, egurrezko zutoinen gainean eraiki behar izan Zen.



Santa Ageda basiliza.



Iriarte etxea edota Lizasoain jauregia.

Neurri handitakoa da eraikuntza; oinplano angeluzuzena eta fatxada nagusian dorrea ditu. Dorrea harlanduzkoa da, oinarrian erdi-puntuko arkuak dituela. Eraikuntza garbi asko somatzen da inguruko harginen tradizioa, bertako harriak duen kalitateari esker belaundiz-belaualdi gorpututakoa.

■ Udaletxea (24-51)

Herriko enparantzan lekutzen da udaletxea (24-51). Arkuteriazko ataria du eta bi solairutako altuera. Eraikuntza mota hauen artean oso ohizkoa ez den adreiluzko dorre karratua gailentzen da. Armarría ere oso toki berezian lekutu da, eraikuntzaren bazter batean.

Eliza eta Udaletxea inguratzen dituzten lurretan herriaren eremu ospetsua biltzen da. Gune honetan lekutzen dira Munoa Jauregia (24-52), oinetxea, eta Monjaetxe (24-54), -hau, izenak adierazi bezalaxe komentua izan zena. XVIII. mendean sortu zen, gaur egun dagoen etxea 1903koabada ere-.

■ Hilerrira doan kale-bidea jarraiki, -Ernio aldera artaldeak go oh; ziren bertatik- zenbait eraikuntza txukun agertzen dira: Otegi baserria (24-55) San Pedro txiki kaperaren aztarna harriak (24-56) eta Bengoetxe baserria (24-57), bailaran hain usu den legez, bi atal aurreratua dituen.



Bengoetxea baserria.

■ Erdigunetik zertxobait bereziaz Iriarte etxea (24-60) azaltzen da tinko. Lizasoain izenez ere ezaguna da. XVII. mendeko basajauregi bikaina dugu; baseliza bat du erantsia, kapera pribatua izan zena. Santa Age-da izena du (24-61).

Iriarte inguruko multzoa adierazgarriak diren bestelako eraikuntzek osatzen dute, Muñagorri baserriak (24-62) esate baterako, bebarru-sarreran arku karpanel bat duena.

Eraikuntza multzo hau oraindik ere erabiltzen den bidexka bat; lotzen zaio eta errepide nagusiarekin Oxinondo baserria (24-32) igarota bat egiten du. Baserri honetan ere begibistakoa da hargintzaren eragina, begiratu batean harlanduzko fatxada nagusia, erdi-puntuko bi arkurekin nagusitzen delarik.

UDALERRIA

Errepidearen albo banatan hedatzen den lautada zabalean, Zenbait industri instalakuntza izan ezik, gainerantzean lurganadutza da aribide nagusia. Ez da harritzekoa, honenbestez, ibar itxi honetan hedatzen diren muino eta isurbide ugari gaina hartuaz hainbeste baserri lekutzea.

Illauemendiko San Pedro multzoaren inguruetan pilatzen dira baserriak gehienak. Baseliza (24-37) landa eraikuntza apala da, hormetan oraindik ere buztinezko estaldurak bista-bistakoak dituena. Elola azpikoa (24-38) eta Elola Garaikoa (24-39) baserriak kokatzen dira ondoan Bigarrena oraintsu egindako lanetan guztiz berriak izan da; Elola azpikoa berri bi arku karpanel ikusgarri dituen ataria du.

Illauemendiko mendi-hegaletan zabaltzen diren baserri artean, era guztietako adibideak ditugu. Aspaldiko eraikuntzen artean aipagarrienak Ibarre (24-33), Labaka Barrena (24-50) eta Aztegi (24-36) ditugu; Illundek (24-35) eta Arretzek (24-34) antzin-jatorria adierazten duten arku-zorrotzak dituzte, beharbada erdi arokoak.



Apaizetxea (Goiazko dorrea)



Muñagorrietxea.

GOIAZ

Aspaldiko herririkatxo hau Bidaniako ibar gainean tentetzen da urnabe erreka gainean estrategikoki lekurik mendirikatxo batez baliatuaz; bertatik, Urrakiko Gaina zeharkatuaz Azpeitira doan errepidea igarotzen da.

HIRICUNEA

Gune nagusia, txikia baina hiri-ezaugarri ederretakoa, enparantza inguruan tajutzen diren dozena bat etxek osatzen dute. Hemen, fatxadan eraikuntzarako materialek duten banaketa bitxiagatik Aldekoetxea etxea (24-47) gailentzen da: beheko solairua harlanduzkoa da eta gainerakoa egur eta adreiluz egina. Leihoetariko batean egurrean tailaturiko giza-irudi bat dago. Mikelandegi Zahar baserriak (24-45), atean bataiarri bat duela, Umabe auzora doan bidearen hasiera markatzen du, lehen Azpeitirako galtzada igarotzen bertatik.

■ Jasokundearen Andra Mariaren izenpeko Parroki-Elizak (24-48) hego fatxadan, apaizetxearen parean dagoen aldean (24-46) arku zorrotz xume bat dauka, itxia. Eraikun-



Aldekoetxea etxea.

tza, apaizetxea biltzen duena, agiritan Goiazko dorrea izenez ezagutzen da; erdi aroko eraikuntzaren elementu garrantzitsuak gorde ditu, arku zorrotzeko kihoak esate baterako. Ibarren gainean hartzen duen lekua adierazgarria da, aldaparik handi bateko eremua eta honenbestez, babeserako baldintzarik egokienak dituena. Errekan, dorretxe azpian latsbegi txiki bat jaiotzen da, San Juango iturria (24-49) izenez ezagutua, desagertutako basiliza batekin zerikusirik izan lezakeena.

UDALERRIA

Umabe

Izen bereko errekaostorekin bat egiten duela, Urrakirako Errege Bidea igarotzen den lekuan, errepidearen azken aldaketa baino piskatxo bat lehenago, baserri bakartiez zipriztinduriko haran eder bat zabaltzen da. Alkorta etxeak (24-44) usadiozko fatxada dauka egurrezko bilbadurez egina. Ganbarak bi zulo triangeluar oso bitxi ditu.

Etxenagusia (24-43) badirudi 1740 alde-ra eraikia dela. 1949an egin zitzaizkion berritze lanek itsusitu egin dituzte etxeak jatorriz zituen ezaugarriak.

Goienetxek (24-42) neurri handitako armari itzela du, Goiatzko oinetxeetariko bat izan zela pentsarazten duelarik.

Gezarretak (24-41) ez du arkitektura-ezaugarri nabarmenik eta baserri-sail arruntaren artean barne-hartzen da.

Mendizabal-iturri (24-40) goigune batean ibarren bazter ezkutu batean lekutzen da. Izenak adierazten duen bezalaxe alboan iturri bat dauka. Erdi Aroan eraikitako etxea izan liteke, gerora berritua izan dena.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiak 1992. urtean argitaratutako
GIPUZKOAKO GIDALIBURU HISTORIKO MONUMENTALA

